

SORMEN DIGITALA ARLOKO**PROGRAMAZIO LABURRA**

Irakaslea	Ekintza Landa Artxanko eta Maitane Suarez Lesaka	Maila	DBH 2	Ikasturtea	2020/2021
-----------	--	-------	-------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Diziplina arteko hautazko irakasgai berria, euskara, musika, gorputz hezkuntza, plastika eta teknologia barne hartzen dituena. Irakasgaiaren asmoa sormena lantzea da, euskal kultura ardatza izanik. Zalantzarik gabe, ikasleei aukera berriak eman nahi zaizkie ekoizpen kulturalak sortzeko. Ikaslearen interesa eta gogoia piztuko duen aukera anitzeko tallerrak baliaturik ikasleek bere ekoizpenak egin beharko dituzte.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK									
	1	2	3	4						
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X						
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.										
3) Gaitasun digitala.	X	X	X	X						
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X						
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X	X						
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X	X						
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X	X						

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

Lau multzo landuko ditugu tailer bidez. Haietako bakoitzak gai bat du habiapuntutat alderdi desberdinetan landuko ditugunak, azkenean produktu berri bat sortu ahal izateko gure kultura oinarri duelarik.

1. Multzoa: Handia, sentimendua. Handia filma du abiapuntua.

2. Multzoa: Ezpain zapia, hitza. Mikel Laboaren Txoria txori kanta du abiapuntua.

3. Multzoa: Frontoia, irudia. Leire Urbeltzek margoturiko frontoia du abiapuntua.

4. Multzoa: Txalaparta, soinua. Nomada TX dokumentala du abiapuntua.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
	Txalaparta		Handia		Frontoia
	Ezpain zapia		Ezpain zapia		Ezpain zapia

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Irakasleak gaia azalduko du eta adibideak ikusiko dira.

1. Gaia barneratzeke ariketa txikiak egingo dituzu.
2. Lana entregatu irakasleak ezarritako egunean kalifikatu dezan.
3. IK/KI arabera taldekatzea (4naka).
4. Proiektuka lan egingo da.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Jarduera bakoitza ariketa proposamenaren bidez aurkeztuko zaizu, argi izan dezazun zein helburu dituen, nola egin, zein material eta zenbat denbora duzun bukatzeko. Irakasleak entrega datak jarriko ditu. Egun bat berandu entregatzeak puntu baten jaitsiera ekarriko du, atzerapena handiagoa bada epez kanpo entregatutakoak berreskurapen trataera jasoko du. (gehienez 5) Jarduerak berreskuratzeko aukera izango duzu 15 egunetako epearen barruan.

Ikasgaia gainditzeko, landutako jarduera guztiak **aurkeztuak** egon behar dira.

Jarrera kontuan hartuko da ebaluaketako kalifikazioan: erakutsitako interesa, ahalegintze maila, talde lanetako partehartzea, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, materiala zaintzea,...

Lanerako behar duzun materiala egunero ekartzea ezinbestekoa da, behin eta berriz ahazteak interes faltaren erakusgai hartzen dira.

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA

LAN PRAKTIKOAK %80	JARRERA %20
Gelako lanetan batezbestekoa egiten ahal izateko gutxienezko nota 4 da	

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

-Ebaluazioa gainditzeko:

Lanak: berregin akatsak zuzenduta eta epe baten buruan eman. Gehienez 5eko nota lortu ahal da.

Ohiko deialdian ikasgaia gainditzeko, ikasturtean zehar egin diren lan guztiak aurkeztu behar dira.

Azterketa Globala kurtsoan landutako gaien inguruan izanen da; Azterketa egiteko ariketa guztiak entregatu beharko dira. Ebaluazio bat suspenditurik izan ez gero bakarrik ebaluazio hori berreskuratu beharko da, 2 baldin badira azterketa globala egingo da. Ekaineko gehieneko nota 5a izango da.

-**Ohiko deialdian** gainditzen ez baduzue, **ez ohiko azterketa** egin beharko duzue. Honetan, azterketa egiteaz aparte, irakasleak errekupeatzeko emandako ariketak eginda emanen duzue. Azken nota honela sortuko da:

%70 kurtsoan egindako lanen nota eta %30 azterketaren nota, beraz, lanen eta azterketaren batez bestekoa. Beti ere atal bakoitza gainditu bada.

-**Ohiz kanpoko** deialdian nahitaezkoa da azterketara aurkeztea. Gehienezko nota 5 izanen da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ez dagokio.